

UDAL ERAKETAREN AKTA

ZINEGOTZI HAUTATUAK

Talde politikoa: EUSKAL HERRIA BILDU

Pedro Maria Estanga Lasa Jna.
Miren Josune Eizmendi Manterola And
Aratz Luisa Urcola Jna.
Izaskun Jauregi Sainzar And.
Bakarne Olano Manzano And.

Talde politikoa: EUZKO ALDERDI JELTZALEA –PARTIDO NACIONALISTA VASCO (EAJ/PNV).

Kepa de la Iglesia Sánchez Jna.
Iñaki Merino Castro Jna.
Francisco Berbel Perez Jna.
Jose Ignacio Otermin Garmendia Jna.

Idazkaria: Nekane Agirresarobe Etxeberria And.

Egun eta ordua: 2015eko ekainaren 13an, eguerdiko 12tan.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, 2015eko ekainaren 13an eguerdiko hamabitan lehen deialdian, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. Artikuluan xedatutakoa betez, eta Udala eratzeko bilkura egiteko, Zinegotzi hautatuak bildu dira, horiek aurrez beren kredentzialak aurkeztu dituzte, bere nortasuna egiaztatuz eta bateraezintasun arrazoiak, jardueren eta ondare ondasunen aitopenen aurkezpena bidezkotuz, Udal Batzarraren partaideen Interesen Erregistroan jasotzeko.

Adineko Mahaia Jose Ignacio Otermin Garmendia Jnak eta Aratz Luisa Urkola Jnak. osatu dute, adin gehiena eta gutxiena duten Zinegotzi hautatuak izateagatik, hurrenez hurren, Eskualdeko Hauteskunde Batzordetik jasotako ziurtagiriek diotenaren arabera. Lehendakari gisa Jose Ignacio Otermin Garmendia jauna aritu da adin gehiena duena izateagatik, eta Idazkari lanetan, Udaleko Idazkaria den Nekane Agirresarobe Etxeberria And.

Maiatzaren 24an izandako hauteskudeko emaitzak, Tolosako Hauteskunde Batzordeak bidali ditu eta Mahaiko Lehendakariak emaitza hauek zeintzuk izan diren jakinarazten du:

*Hautesle kopurua	1.481
*Boto emaileak	1.029
*Botu emaileak hautagaiei	982
*Baliiodun botuak	1.012
* Baliogabeko botuak	17
* Botu zuriak	30

HAUTAGAI BAKOITZAK LORTURIKO BOTU KOPURUA:

- EUSKAL HERRIA BILDU 512 botu 5 hautetsi
- EUSKO ALDERDI JELTZAILEA-
PARTIDO NACIONALISTA VASCO 445 botu 4 hautetsi
- PARTIDO SOCIALISTA DE EUSKADI-
EUSKADI EZKERRA (PSOE) 25 botu

Zinegotzi hautatuak bertan direla egiaztatu ondoren, Lehendakariak hitza hartu eta mahaiak erabakitakoaren arabera boto gehien dituen kandidaturatik boto gutxien ditueneko ordena jarraituz egin behar dela jabetza hartzea adierazi du. Beraz, lehenengo deitu zaie:

- EUSKAL HERRIA BILDuko Zinegotzi hautetsiak:

ESTANGA LASA Jnak. hartu du hitza eta adierazi Miren Josune EIZMENDI MANTEROLA, Aratz LUISA URKOLA, Izaskun JAUREGI SAIZAR, Bakarne OLANO MANZANO eta bere izenean, egin behar hauetan Legeak agindu eta horrela behartua, karguaren jabetza zin egiten dutela.

- EAJ/PNV Zinegotzi hautetsiak:

DE LA EGLESIA SÁNCHEZ Jnak. hartu du hitza eta adierazi Iñaki MERINO CASTRO, Francisco BERBEL PEREZ, Jose Ignacio OTERMIN GARMENDIA eta bere izenean, egin behar hauetan Konstituzioak dioena ontzat hartuko dutela Legeak horrela behartuta.

Taldeen parte hartzea amaitu ondoren, mahaiak KORPORAZIOA FORMALKI ERATUTZAT JOTZEN DU.

Ondoren, alkatea hautatzeari ekin zaio eta, horretarako, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. atalean ezarrita dagoen arautegiarekin adostasunean, alkate izateko ondoko zinegotzi hauek izendatu dira hautagai:

HAUTAGAIAREN IZENA / TALDE POLITIKOA

Pedro Maria ESTANGA LASA. EUSKAL HERRIA BILDU

Kepa DE LA IGLESIA SANCHEZ..... EAJ/PNV.

Presidenteak proposatuta eta hautetsien onespenearekin, eskua jasota egin dute botazioa.

Bertaratutako zinegotziek bozketa egin dute eta hau da lortutako emaitza:

HAUTAGAIAREN IZENA/ EMAN ETA LORTURIKO BOTUAK

Pedro M^a ESTANGA LASA 5
Zuriak 4

Bozketaren emaitza ikusita, **PEDRO M^a ESTANGA LASA**, EUSKAL HERRIA Bildu talde politikoko hautagai zinegotzia, **UDAL HONETAKO ALKATE IZENDATU DA**, Lehendakariak mahaiburuan esertzeko eta karguaz jabetzeko adierazi dio.

Pedro M^a ESTANGA LASA zinegotzi hautatuak Anoetako Udaleko Alkate kargua onartzen du eta Legearen arabera eta horrela behartua, aginaldian emaniko ardura beteko duela zin egiten du; karguaz jabetu da Udalbatza osoaren aurrean, indarrean dauden xedapenek ematen dioten eskumen, eskubide eta betebeharrekin.

Azkenik, alkateak hartu du hitza, besteak beste, aretoan dauden herritarrei bereziki eskertzeko bertara azaldu izana; halaber, kargua uzten duten zinegotzietan egindako lana eskertzen die, eta zinegotzi hautetsiak animatzen ditu elkarlanean aritzera. Bilera amaitutzat ematen da 12:15 minutu direnean, bertan esandako guztia jasotzeko akta hau egin da eta nik, Idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.